



13.ZIRKULARRA

2019-20 Denboraldia

EMAKUMEZKO ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Emakumezkoen erregionalen ohorezko txapelketa antolatzen du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: TOURING K.E.; OSTADAR S.K.T.; ZUMAIAKO F.T.; ZARAUTZ K.E.; LAGUN ONAK C.D.; GOIERRI GORRI F.K.; BERGARA K.E.; UROLA K.E.; AÑORGA K.K.E.; TOLOSA C.F. INTXAURDI K.E.; HERNANI C.D.; URNIETA K.E. eta LEINTZ ARIZMENDI K.E.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen erregionalen ohorezko liga talde bakarrean jokatuko da, puntuen bidez eta bi itzulietara, Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituz.

Emakumezkoen Euskal Ligara lehen sailkatua igoko da. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako bigarrenak Emakumezkoen Euskal Ligara iguera promozioa jokatuko dute (2020-05-24).

Emakumezkoen Gorengoan mailara azken bi sailkatuak jaitsiko dira.

3) GIPUZKOAKO KOPA

Liga bukatua (26 jardunaldi), 14 taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute. Lehenengo bi sailkatuak Final-zortzietan salbuetsiak geratuko dira. Final-zortziak (2020-04-16); Final-laurdenak (2020-05-03); Final-erdiak (2020-05-10) eta Finalak (2020-05-17) jokatuko dute.

4) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa, eta gehienez zazpi ordezko eserlekuan.

5) ORDUTEGIAK

Klub antolatzaileek, aukera izango dute, beraien partidua larunbat arratsaldera aurreratzeko, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

6) XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen erregionalen ohorezko mailaren helburua 14-16 taldeko multzo konposizioa lortzea da. Hori dela eta, zirkularrean aurreikusitako igoera eta jaitsierekin eta Euskal Ligatik egon daitezkeen jaitsierekin multzoa talde bakoitiek geratuko balitz, lurraldeko kategoria guztietan igoera eta jaitsierekin erabiltzen den irizpide orokor berbera erabiliko da, hots da:

- a) Emakumezkoen Gorengo Mailako talde bat igota.
- b) Emakumezkoen Erregional Ohorezko Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz.
- c) Eta horrela behin eta berriro

Izena emandako taldeek gehienez 25 lizentzia izan dezakete eta kopuru honetan “FA”; “FJ” eta “FC” lizentziak zenbatuko dira; azkenekoan (FC) 15 urteak beteak izan beharko dituzte. **Lehen ekipoan inskribatutako eta FJ “ edo “FC” lizentzia duten jokalariek ezingo dute jokatu lizentzia hauei dagokien taldean, hau da, jubencil eta kadetea.**

7) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

Donostia, 2019ko iraila
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe